




Denbora-



1 Dardoak


Miren

Gazte elkartera joan, eta dardo partida jokatzen aritu dira Miren eta Julen. **Nor izan da trebeena?**

Julen



2 Itzalak

Zulagailua erabiltzen du Peruk egunero. **Zein da Peruren lanerako tresnaren itzala?**




3 Zazpi aldeak

Aitonak emandako animalien liburuko irudi bat kopiatzen saiatu da Aitor. Ez zaio guztiz berdina atera, ordea. **Zeintzuk dira batetik bestera dauden zazpi aldeak?**




-pasak



4 Osatu hitzak

Markel marrazkilari aparta da. Egin dituen hiru marrazkiak arretaz begiratu, eta ez zaizue zaila izango bakoitzaren ondoan ageri diren hitzak osatu ahal izatea.



5 Margotu eta asmatu

Lauki bakoitza dagokion kolorez margotuz gero, Euskal Herriko ikurretako bat topatuko duzue.

1- Berdea, 2- Gorria, 3- Zuria, 4- Laranja, 5- Urdina

Frantzunak: 1.- Miren 1.050 puntu eta Julenek 1.025. Miren izan da trebeena. 2.- g. 4.- Arkatz, Iratzargailu, elefantea. 5.- Ikurrina.

Jolasa



Ahoarekin arrantzan

Uretan dauden tapoiak nahiz kortxoak atera beharko dituzte jolas honetan jokalariek. Ahoa baino ezingo dute erabili horretarako. Dibertigarria, ezta?

1 Igerilekuan egin daiteke jolas hau, edo eta ontzi bat erabilita. Dena den, ontzi batekin jolastea dibertigarriagoa da.

2 Bota nahi adina kortxo edo eta tapoi uretara.



3 Jokalariek uretatik atera beharko dituzte kortxoak edo eta tapoiak. Dena den, ez da erraza izango. Izan ere, ahoarekin baino ezingo dute egin. Gainera, banaka atera beharko dituzte.

4 Ahalik eta azkarren atera beharko dituzte tapoiak, tapoi gehien ateratzen duena izango baita irabazlea.